



- Ikasleak, binaka, ibilbideari buruzko artikulua aurrean dutela, "Mapa osatzen" ariketako erantzunak adosten saiatuko dira. Ariketa talde handian zuzenduko dugu.

**ERANTZUNAK:**

1. Enkarterria; 2. Gorbeia; 3. Lea-Artibai; 4. Bastida; 5. Debagoiena; 6. Pasaiako itsasadarra; 7. Bardea; 8. Iratiko basoa; 9. Lizarralde; 10. Maule; 11. Angelu; 12. Lautada.

- Ikasleek, binaka, 22. KORRIKari hasiera emateko herri bat aukeratuko dute, eta e-posta idatziko diote AEKri proposamena azalduz: zein herri proposatu nahi duten, zergatik, herri horren ezaugarriak...
- E-postak ozen irakurriko ditugu eta, talde handian, proposamenik onena aukeratuko dugu.
- Denbora-pasak eskolatik kanpo egiteko proposatua diegu ikasleei: epe bat jarriko dugu, eta, nahi duten bidea erabiliz (Interneten nabigatu, lagunei galdetu...), erantzun zuzenak aurkitzen saiatuko dira. Behin epea beteta, erantzunak talde handian alderatu eta zuzenduko ditugu.

**ERANTZUNAK:**

**Hamar baietz:** 1-b; 2-b (Gares 344 metroan dago, eta Gastezi, berriz, 525 metroan); 3-a; 4-a (Joseba Sarrionaindia Iurretakoa da, bizkaitarra; Pablo Sarasate iruñekoa, nafarra); 5-c; 6-a (Txillardegia donostiarra da); 7-c; 8-b; 9-b; 10-b.

**B. KORRIKAREN jokoak**


- KORRIKAREN ibilbidea, Euskal Herriko geografia eta mailari dagozkion hainbat eduki berrikusteko jokoak egingo dugu. Jokoaren prozedura, taula eta fitxak "KORRIKAREN ibilbidearen jokoak, C1" dokumentuan dituzu.

**ERANTZUNAK:**

Jokoaren erantzun gehienak txarteletan daude azpimarratuta, baina gutxi batzuek txarteletan agertu behar ez dutenez, hona ekarri ditugu:

**KORRIKA-logotipoak:**

11. KORRIKA,



12. KORRIKA eta



13. KORRIKA.

**Hieroglifoak:**

- Zein herri zeharkatuko du Korrikak Iparraldetik atera ondoren? **Irun.**
- Herri hau KORRIKA baten abiapuntua izan zen. **Andoain.**
- Nola egingo duzu korrika? **Kohete** batek bezala.
- Zenbat kilometro egingo duzu KORRIKAN? **Hamaika.**

**Izartxoak:**

1. 12. KORRIKA; 2. Egan; 3. Esne Beltza; 4. Ines Osinaga; 5. 1. irudia; 6. C; 7. C; 8. 2. irudia.



— LOTU ONDOKO LEKU HAUEK DAGOZKIEN ZENBAKIEKIN:

**ESKUALDEAK:**

- Lea-Artibai
- Lautada
- Enkarterria
- Lizarraldea
- Debagoiena

**HERRIAK, HIRIAK...**

- Maule
- Bastida
- Angelu

**BESTE LEKUAK**

- Gorbeia mendia
- Bardea
- Pasaiaiko itsasadarra
- Iratiko basoa

